

GIPUZKOAKO BILERA PROBINTZIALA (86-2-15)

Bilerara herri hauek agertu ziren: Lasarte, Donostia, Orereta, Hernani, Tolosa, Ordizia, Zaldibia, Mutriku, Zarautz, Irun, Arrasate, Pasaja, Oiartzun eta Getaria.

Deialdian agertu genizuen bezala, bi izan ziren aztertutako gaiak.

EKBri buruzko informazioa

EKB-k bi lan nagusi dauzka une honetan esku artean:

1. Euskararen Eguna:

Iaz bezala, aurten ere EKB-k Euskararen Eguna antolatuko du. Aurten-
goa apirilak 27an egitea pentsatu da.

Oraingoz, eguna prestatua ez egon arren, aurrera daiteke ez dela
eguna bakarra izango, 27aren aurreko astea osoa baizik. Asmoa da Euskara-
ren Eguna hiru mailetan prestatzea:

- Nazionala: Kontzentrazio edo manifa bat 27an (Iruñean?)
- Sektoriala: Sektore bakoitzak, kasu honetan EHEk, antolatuko duena.
- Herri mailan: Herri bakoitzako sektore guztiak bilduz, bertan antola-
tuko dena.

2. Finantziazioa:

EKBk orain arte funtzionatu izan du sektore bakoitzak jarri duen
diruarekin. Gertatzen da diru iturri hoiak ez direla batera estableak.
Beraz, beste edozein erakunde bezala, EKB ere finantziazio estable bat
lortzen saiatzen ari da. Eta, orain, hau izango da: EKB erakundeen
eta ez pertsonen koordinakundeaa denez, erakundeetatik jasoko du dirua.
Ikastola, euskaltegi, euskara talde e.a. bakoitzak, hiruhilabetero 1000
pzt. jarriko ditu. Dagoeneko AEK-k, EHEko Iraunkorrek eta Gipuzkoako
Batzarre honek onartu dugu proposamen hau. Beraz, ahal duzuen neurrian,
honekin batera doan EKBko orria bete eta Arranora bidali.

"EHE. 1986. URTEARI BEGIRA" TXOSTENA

Iraunkorrek prestatutako txostena azaldu eta hau erabakitzen da:

1. Taldearen sendoketari dagokionez:

hedakuntzarako erabiltzeko.

- Onartzen da diru gehiago lortzen saiatzen hastea Gipuzkoan 2. liberatua jartzeko.

Onartzen da kuotaren igoera, beraz hurrengo ordainagiria 1500 pztakoa izango da. Hala ere, eskutitz bat bidali beharko zaie bazkide guztiei igoeraren zergatia azalduz.

Igoerarekin iristen ez denez 2. liberatua ordaintzeko, bazkide berriak lortzeko kanpaina zabaltzen da. 70 bazkide berriak lortu behar ditugu. Ez zen eperik jarri baina, komenigarri litzateke Apirilaren bukaerarako (Euskararen Egunerako) lortuak edukitzea. Honekin batera doakizue bazkideak egiteko orria. Animo eta ea asko lortzen ditugun.

(*)

2. Inzidentzi handiagoa lortzeari dagokionez:

Draingoiz, bideratuko diren kanpainak hauek dira:

- RENFE: Bidali zaie zenbait karta gure postura azalduz eta elkarrizketa eskatuz. Beraiek erantzun dute erdaraz, ez digute elkarrizketarik eman eta benetan asmo gutxi adierazten dute.

Ondorioz, "RENFE euskaraz orain" lemapean, RENFEren kontra ekitea erabakitzen da. Lehenengo ekintza Donostiako estazioan kontzentrazio bat izango da; kontzentrazioa joateko herrietako jendeak tren berbera hartuko du eta barrundik txartelez josi.

Geroago pankartak herri guztietan eta aurrerago espraiaz trenak zikindu.

Ahal den neurrian, FEVEkin gauza bera egingo da.

- OTAN: Abisu publikoa egin ondoren, erdaraz dauden edo euskara zokoratu duten txartelak espraiaz, errotuladore lodiaz edo tirekin estaliko ditugu

- ETB: Firmak, otsaila bukaerarako Arranon egon beharko dute.

Kontrola, benetan zenbat erdara erabiltzen duten jakiteko

17-23ra Donostia, Orereta

24 Hernani

28 Tolosa

25 Lasarte

1 Irun 5ak arte, Goiherri 5tik aurrera

26 Mutriku

2 Getaria 5ak arte

27 Zarautz

Kontrola egin ondoren prentsaurreko bat prestatuko dugu emaitzak kaleratzeko

ETBn propaganda erdaraz egiten duten enpresen kontra ere egingo dugu. Bai bere izenekin txartelak herrietan jarriaz, bai enpresa beraren hormetan txarelak eta espraia erabiliz.

Hauetaz kanpo, gelditu zitzaizkigu beste zenbait ekintza eta lan garrantzitsuak aztertu gabe (administrazioa, formaziorako mintegia..)
Bai onartutako lanak, bai besteak, Iraunkorrak bideratuko ditu, hurrengo bilerarako proposamen berriak prestatuko dituelarik.

Eguna ez da jartzen baina, gutxigora behera, hurrengo probintzila aste santuaren inguruan izango da.

=====

Gutxi gora behera, ekintzetarako kalendariora horrela gelditzen da:

Otsails: -21,22 edo 23 mahaiak jarri "aurrera!" saltzeko

-OTANeko txartelak (erderazkoak) estaltzen hasi

-28rako firma guztiak Arranon

-ETBko kontrola

Martxoa: -1,an RENFEko ekintza (Donostiako estazioan kontzentrazioa)

-8,9 pankartak "RENFE (FEVE) euskaraz orain" estazioetan

-12tik aurrera enpresen kontrako txartelak herrietan

-OTANeko txartelak estaltzen jarraitu

-ETBko tirak jarri (leku konkretuetan: tabernak, elkarteak...)

-Bi ekintza gelditzen dira: -Trenak espraiez zikindu

-Enpresetan txartelak eta espraia

Bi ekintza hauek egiteko Donostiatik pasako da abisua.



**EVSKAL HERRIAN
EVSKARAZ**

(*). Dinua bertako beste ideia bat azaldu zen: Probintziako jai nagusietan txartelak jarri. Martinek prestatuko du eta hurrengo bileran azalduko digu

ZALANTZAK BALDIN BASITUZUE, BADAKITZUE: